

HAURTZAROKO

Jabier Agirre

Izenburu nagusi honen azpian egoera ezberdin asko bildu nahi dira, baina guztientzat ezaugarri amankomun batzuk nabarmenduz. Eta zeintzuk dira ezaugarri amankomun horiek?

- Eritasun hauek, nahiz eta bizitzako edozein adinetan agertu ahal izan, haurtzarokan eta bereziki eskolan ezaugarri bereziak dituzte; kutsagarritasunari dagokionez batez ere.
- Eritasun hauen sortzaileak parasitoak dira, h.d., beste norbaiten bizkar (kasu hauetan umearen bizkar) bizi diren izaki bizidunak. Normalean nahikoa handiak dira; begi hutsez ikus-teko modukoak.

ZORRIAK

Zorriak aspaldiko gauza zirela pentsa daiteke, gaur egungo gizartearentzat desagertutako zerbait baliran. Zoritxarrez, duela zenbait urtetik hona parasito hauek nabarmen ugaltu dira. Ikasturtearen zenbait aro edo aldirekin kointziditzen dute ugalketa hauek; umeak oso maiz infestatzen bait dira intsektu hauekin, eta kutsapen-iturriak bestalde, jende asko egoten den lekuak bait dira.

Ezin pentsa daiteke gaur egun zorriak status sozioekonomiko apala duten lurraldeetako gauza bakarrik direnik; gizarte-maila guztietan hedatuak bait daude. Eta hortaz, ez lukete konplexu-arrazoi izan behar eta ezta erru-sentimendurik sorterazi behar ere. Baina, dena den, giza arazo bat bezala onartu beharra dago.

PARASITO-MOTAK

Zorriak hiru espeziekoak izan daitezke:

- Buruko zorria (*Pediculus humanus var. capitis*)
- Gorputzeko zorria (*Pediculus humanus var. corporis*)
- Barrabiletako zorria (*Phthirus pubis*)

BIZITZA-ZIKLOA

Sexu-dimorfismoa dute: normalean zorri arrak emeak baino txikiagoak izaten dira.

Arrautzak erruten direnean, arrautza hauek (PARTZAK), 0,6-0,8 milimetrokoak, ileen sustraian atxekitzen dira, uretan disolbaezina den masa edo ore baten bidez, eta horregatik era mekanikoz soilik banantzen dira. Arrautzak gauez erruten dira, ile-sustraietan, larruazalek 2 bat cm-ra. Arrautza bakoitza ile bati atxekitzen zaio.

Arrautzaren garapena kanpo-tenperaturaren baitan dago

erabat. 35-37°C-ra, larbak 5-7 egun ondoren irteten dir. Temperatura jaisten doan neurrian, egun gehiago behar dituz larbek garatzeko (8-10 egun 25-30°C-ra, eta 16 egun 22-24°C-r eta 22°C-z azpitik garapena eten egiten da. Hotzaldi honek zaz egunetik gora irauten badu, arrautza ez da garapen-zikloa aurre eramateko gai.

Larba, arrautzetik irten ondoren 2 astetan 3 muda jasan egero heldua da sexualki, eta odol-hartualdi bat egin ondoren pre dago arrautzak sortzen hasteko. Batezbeste buruko zorriar bizitza-zikloak 20 egun irauten du, tenperaturaren arabera.

Zorri heldua hilabete bat edo bizitzen da. Bizitza teoriko ha beti laburtzen da zertxobait; hilkortasuna handia bait da (ha egiteagatik, orrazketagatik, etab). Zorri zahartu, gaixo edo hila burutik erori egiten dira.

Kalkulatu izan denez, buruko zorriak 150en bat arraut jartzen ditu bere bizitza osoan zehar. Zorria parasito iraunkor da. Baldintza egokietan (zorriarentzat egokiak direnetan, noski errundako arrautzetatik %60 zorri heldu bilaka daitezke.

TRANSMISIOA, INFESTAZIOA (KUTSAPENA)

Zorria, buruan (eta ileen artean bereziki) ezartzen da. Il asalatu egiten da, lehortu, eta erortzera irits daiteke, em kumezkoetan bereziki; hauetan zorriak oso baldintza mes degarriak aurkitzen bait dituzte (ile luzea, batez ere).

Zorriek odola zuputzen dute aldi luzetan. 15 eta 38°C artea bizi daitezke, baina 40°C-tik gora hil egiten dira. Bero hezea 60°C-ra arrautzak desegin egiten ditu 15-30 minututan.

Buruko zorriak erraz pasaten dira ostalari batetik bestera e elikagairik gabe (h.d. odolik gabe) gai dira hamar egune irauteko. Kutsapen-iturriak, lehen-lehenik, pertsona asko bate kointziditzen duteneko lekuak dira (eskolak, haurtzaindegia kanpamenduak, etab.) Arreta berezia merezi dute eskola e haurtzaindegiek; hauetan, beren jolasetan, umeak oso erraz elk kutsa bait dezakete. Kapela edo antzekoen elkar-trukeak, orrazi eta jostailuak amankomunean erabiltzeak, etab.ek buruko zorri hedapen azkarra dakarte.

Adineki begira, emakumezkoetan gehiago izaten dira giz nezkoetan baino (edozein adinetan). Baina umeak dira, batez ere eta edozein garaitan, adoleszentzi bitartean gehien erasat direnak.

Transmisioa, ZUZENEKO HARREMANEZ gertatzen batez ere. Orraziak, gorroak, etab. amankomunean erabiltzeak e kutsatzea errazten du. Burutik behera erortzen diren zorriak be daude hilak edo lesionatuak eta ez dute, beraz, infestaziorak

PARASITOAK

arriskurik.

Zergatik dira hain molestoak zorriak? Odola oso maiz zuputzen dutelako, eta ziztada hauek behin eta berriz errepikatzen direnean hazkura handia sortzen dutelako. Gehien zauritzen den lekua belarri-ingurua da; buruaren atzekaldea, lepondoa.

Pertsona bakoitzak sentikortasun ezberdina du: hatz egiterakoan inflamazioa (eta ondorengo bakterioengatikoko infekzioa) hazi egiten da. Honek eta zorrien eskrementuek zarakarrak, oilaurrak eta zornejarioak sor ditzakete. Betileak erasaten direnean, konjuntibitisa ere ager daiteke.

PREBENTZIOA

Hazkura (gero eta handiagoa) eta hatz egitea izan daitezke zorrien lehen seinalea. Garrantzi handikoa da kutsapen-iturria ahalik eta lasterren aurkitzea infestazio gehiago gerta ez dadin.

Prebentzioaren aldetik honako puntuok bete behar dira:

- Ilea, maiz txanpu normalaz garbitzea (astean 2-3 aldiz).
- Ilea egunero ongi orraztea, tresna horiek ongi garbituz.
- Umeen burua, astean behin edo bitan, ongi aztertzea partzak ikusiz; batez ere belarri atzeetan eta lepondoan.

Partzek larruazalera duten distantziak infestazioaren adina (edo zenbat egunetakoa den) adieraziko digu.

Familiako beste partaideak ere aztertzea komeni da.

Tratamendua, ordea, parasitoak ikusten direnean soilik egin.

TRATAMENDUA

Lehen-lehenik esan dezagun komertzioan bi motako botikak daudela salgai: lozioak eta txanpuak. Lozioak denbora gehiagoz irauten dute ilearekin kontaktuan, arrautzetan duten sarrera-maila handiagoa da eta beraz arrautzak desegiteko ahalmen handiagoa dute. Txanpuak uretan eraginda badaude eta nahiz eta parasito

helduak suntsitu, arrautzengan askoz ere eragin txikiagoa dute.

- a) Piretrinak (naturalak, sintetikoak). Intsektuen aurka eragin handia eta toxikotasun txikia gizakiarentzat.
- b) Malathion, cabaryl (lozioak dira). Ekintza bortitza duten arren (zorri zein arrautzen aurka) beren toxikotasuna ere handia da.
- c) Lindano, DDT. Toxikotasun handia eta bestalde azken urteotan ikaragarri erabili direnez, hasi dira zepa erresistentek agertzen. Arrautzen aurkako eragina ez da oso handia. Beraz, ez dira oso erabilgarriak.

Tratamendu egokia nola egin?

- 1 Ilea ez litzateke lozioa eman aurretik garbitu behar; ilearen grasak lehengai aktiboaren finkapena erraztu egiten bait du.
- 2 Lozioa ematerakoan, ilea eta larruazala erabat busti. Igurtzi suabe baina etengabe; batez ere belarri atzean eta lepondoan. Ondoren burua estali (bainu-gorro batez adib.), 6-8 ordutan mantenduz.
- 3 Behin denboraldi horretan mantendu ondoren, ilea garbitu. Txanpu normala erabil daiteke, edo pedikulizida bat (zorri-hiltzailea).
- 4 Txanpua buru osoan zehar zabaldu behar da, tokirik erasanean ongi igurtziz. 5 minutuz mantendu behar da txanpua, urez eragin aurretik. Ondoren txanpuaren bigarren aplikazioa gomendatzen da.
- 5 Ilea aklaratu edo irakuzteko, ura eta ozpina erabiliko dira (parte bat ozpin eta bi ur). Ozpinak, partzak ileetara itsasten dituen substantzia zementatzaile hori desegiten du. Ilea ur-ozpinez irakutzi ondoren, askoz errazagoa da partzak esku hutsez desitsastea (horixe da modurik egokiena).
- 6 Ilea lehortzeko ez erabili lehorgailurik. Aire beroak ilea lehortu baina intsektizida hondatu egiten du.

Ilea orrazteko, zurda gogorreko (hobe metalezkoa bada) orrazia erabili behar da.

Tratamendua 3. eta 6. egunean errepikatu egin behar da (hiru aldiz guztira), partz biziak guztiz ezabatu eta suntsitzeko.

Orraziak, ilean jartzen diren apaingarriak, etab. 5-10 minutuz lozio intsektizida batean murgildu behar dira. Barneko erropa, toailak, oheko maindireak, etab. ur berotan garbitu behar dira.

Partzak hiltzeko nahikoa da 51,5°C-ko temperatura 5 minutuz mantentzea edo 49,5°C 30 minututan. Zorriak, temperatura zetzobait baxuagoan ere hiltzen dira. Bero hezea are eta hobea da. Horregatik, lurrinaz lisatzea (plantxatzea) gomendatzen da.

